# Euskal Herriak *hitza* eta *erabakia*

Beste behin ere, langile klasearen aurkako eraso larri baten aurrean gaude eta ezin ditugu aipatu gabe utzi emakumeon kasuan izango dituen ondorio espezifikoak. Izan ere, **eredu kapitalista patriarkatuan oinarritzen da. Eta honen ondorioz, emakumeoi gure eskubideak ukatu egiten zaizkigu**.

Azken erreformen artean, batzuk ondorio oso larriak izango dituzte emakumeontzat, eta helburu argiekin diseinatuak izan dira: **emakume eta gizonen arteko bereizketak handitzea**, emakumeoi atxikitzen diguten zeregin subsidiario horretan sakontzea, eta emakumeok egiten dugun lan produktibo eta erreproduktiboaz baliatzen jarraitzea, inolako aitortza sozial edo ekonomikorik gabe.

Hauen artean **menpekotasun arloan egin behar dituzte murrizketak** aipatu behar ditugu, bi aldiz kaltetuko gaituztenak. Alde batetik, **sektore honetako langile gisa**; jakin badakigulako sektore honetan diharduten gehienak emakumeak direla. Eta langile hauek, kalitatezko enplegua ukatua izan dute aurretik, modu prekarioenetan lan egitera behartu dituztelarik. Orain aldiz, erreformaren ondorioz, prekarietatea areagotu egingo da eta lanpostuen galera handitu.

Eta beste aldetik, gaizki deituriko "eremu pribatu" horretan, **menpeko pertsonen zaintzaile gisa**, inolako aitortza sozial eta ekonomikorik ez duen lana. Gaur egun ere emakumeok gara biziraupenerako eta zaintzarako lan hauek guztiak egiten jarraitzen dugunak. Beraz, prestazioen murrizketa hauen ondorioz emakumeok jardunaldi bikoitzak egitera kondenatuta jarraituko dugu, eta orain arte lan hauek bateragarri egitea zaila bazen, orain, ia ezinezko bihurtuko da kasu askotan. Ondorioz, emakume askok lan merkatu arautua uztera behartuta ikusiko dute euren burua.

**Aipatzekoa ere sektore publikoan** gertatzen ari dena, **emakumeek kalitatezko enplegua eskura zezaketen sektore bakarrenetakoa izanda**. Arlo honetan sarbidea bera eta eskubide laboralak larriki murriztuko dira. Honi guztiari, honezkero **ematen ari diren zerbitzuen pribatizazioak** gehitu behar zaizkie, **bereziki emakumeek burututako lanetan**, garbiketa, pertsonen zaintza... zerbitzu berdinak betez baina lan baldintza oso kaskarretan eta eskubiderik gabe.

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi **merkataritzako ordutegien liberalizazioa, bizitza laborala eta familiarra bateragarri egiteko zailtasunak bikoiztuko** dituena. Emakumez osaturiko sektore hauek pairatzen duten berezko prekarizazioaren ondorioz, lanaldi bikoitza aurrera eramatea oraindik zailagoa bilakatuko da.

Inposaketen gainetik gure eskubideak defendatu eta **Euskal Herriak erabakitzeko ahalmena izatea aldarrikatu behar dugu**. Baina benetan pertsona ororentzat eta justizia sozialean oinarritutako jendarte bat eraiki nahi badugu, **prozesu honek aintzat hartu behar du emakumeon erabakitzeko eskubidea**.

Izan ere, inposaturiko erreforma eta murrizketen gainetik **benetan gaur jokoan dagoena da Euskal Herrian ze motatako jendartea eraiki nahi dugun**. Gobernua bere bidea argi erakusten ari da, bereziki guretzat, emakumeontzat. Patriarkatua indartu, gure bizitzaren inguruko erabaki ahalmena gero eta murritzagoa bilakatu, menpekotasun ekonomikoa areagotu eta ondorioz indarkeria sexistari aurre egiteko zailtasun handiagoak ipini, pertsona autonomo gissa bizi proiektu libre bat garatzeko bidea zaildu, abortua kriminalizatu eta gure gorputzen gaineko erabakiak hartzen ez utzi, osasun eskubidea ukatu, besteak beste mamografiekin planteatzen ari direna, familia eredu tradizionala indartu... **hau da emakumeontzat benetan jokoan dagoena, gure askatasun bide horretan aurrera egitea edo aurreko mendera bueltatzea**.

**LABen argi daukagu, jendarte sozialista antipatriarkal bat osatzea** da gure apustua, emakumeon aurkako indarkeria mota guztiak gainditzera bideratuta egongo dena eta pertsona ororen eskubideak aintzat hartuko dituena.

Inoiz baino premiazkoagoa da beste eredu ekonomiko eta sozial bat Euskal Herriarentzat. Honek estrategia feminista baten oinarritu behar du, benetan berma dadin emakumeok hitza izatea eta gure herriko biharko erabakietan erabakitzeko gaitasuna izatea, batez ere gure eskubideei dagozkienetan.

Guzti honengatik, eta batez ere beharrezkoak diren aldaketa guztiak aurrera eramateko emakumeon borroka beharrezkoa delako, **irailaren 26ean emakumeok greba orokorrera.**

## Irailaren 26an, *emakumeok GREBARA*

LAB

# Euskal Herriak *hitza eta erabakia*

Nuevamente nos encontramos ante otro ataque directo hacia la clase trabajadora, en el que no podemos dejar pasar por alto las consecuencias específicas que van a seguir acarreando para nosotras, las mujeres. No podemos olvidar que **el capitalismo se basa en su carácter patriarcal, el cual perjudica doblemente a las mujeres** y sigue negándonos nuestros derechos básicos como ciudadanas.

Entre las últimas reformas aplicadas, cabe destacar el carácter sangrante de algunas de ellas, especialmente para nosotras. **Éstas persiguen perpetuar nuestro papel subsidiario en esta sociedad y acrecentar las diferencias entre mujeres y hombres**, con el objetivo de seguir valiéndose de todo el trabajo productivo y reproductivo que realizamos las mujeres, sin ningún tipo de reconocimiento social ni económico.

Hablamos de recortes que nos perjudican doblemente, como **en el caso de la dependencia**. En primer lugar, **como trabajadoras de dichos servicios**; ya que la inmensa mayoría de trabajadoras en estos sectores son mujeres. Éstas, ya anteriormente tenían negado un empleo de calidad, estando obligadas a trabajar de modo precario. Dicha reforma no hará mas que profundizar en esa precariedad y en una sustancial pérdida de empleos.

En segundo lugar, **como cuidadoras de personas dependientes**. Tarea sin ningún tipo de reconocimiento ni social ni económico en ese mal denominado "ámbito privado", donde hoy aún seguimos siendo nosotras las responsables de todo el trabajo para la supervivencia y de cuidados. Los recortes de prestaciones supondrán que las mujeres tengamos que seguir asumiendo dobles jornadas que anteriormente se desarrollaban con dificultad, y en muchos casos, estar obligadas a abandonar el trabajo remunerado para poder hacer frente a las necesidad de cuidados que no cubrirán los servicios sociales.

También cabe mencionar lo que está sucediendo **en el sector público**, uno de los pocos sectores con **empleos de calidad a los que teníamos acceso las mujeres**. Aquí se verán gravemente recortados los derechos laborales así como el propio acceso. Todo ello por no hablar de la privatización de muchos de estos servicios que ya se está dando especialmente en sanidad, **externalizando especialmente los desarrollados por mujeres**, limpieza, cuidado de personas... prestando así los mismos servicios pero en condiciones laborales pésimas y sin derechos.

Por último, tampoco podemos dejar de mencionar la **liberalización de los horarios comerciales**, que va a suponer una **vulneración del derecho a conciliar la vida familiar** y laboral, hoy prácticamente imposible por la precarizacion de dichos sectores que están compuestos en su inmensa mayoría por mujeres.

Debemos defender nuestros derechos ante las imposiciones y **reivindicar la capacidad de decidir de Euskal Herria**. Pero si realmente queremos construir una sociedad basada en la justicia social y en igualdad de condiciones para todas las personas, este proceso también debe ir **acompañado del derecho a decidir para las mujeres**.

**Lo que está en juego hoy**, mas allá de las diferentes reformas y recortes impuestos, **es qué tipo de sociedad queremos construir aquí, en Euskal Herria**. El gobierno ya está dejando clara cuál es su apuesta, especialmente para nosotras las mujeres. Fortalecer el patriarcado, seguir profundizando en la pérdida de derechos en lo referente a la toma de decisiones sobre nuestras vidas, más dependencia económica y por lo tanto mayor dificultad para hacer frente a la violencia sexista, dificultar el poder desarrollar un proyecto de vida como personas autónomas, criminalizar el aborto y negarnos el derecho a decidir sobres nuestros cuerpos, negarnos derechos sanitarios como lo que se está planteando en lo referente a las mamografías entre otros, reforzar el modelo de familia tradicional... Éso es realmente lo que nos está pasando a las mujeres, **tenemos que elegir entre seguir avanzando hacia nuestra libertad o volver al siglo pasado.**

**Desde LAB lo tenemos claro**, apostamos por una sociedad dirigida a superar toda opresión hacia las mujeres y garantizar el reconocimiento de los derechos para todas las personas, por lo tanto, **una sociedad socialista antipatriarcal**.

Es más urgente que nunca un nuevo modelo económico y social para Euskal Herria, el cual tiene que basarse en una estrategia feminista para que realmente garantice que las mujeres también tengamos la palabra y la capacidad de decidir en las futuras decisiones de nuestro pueblo, y sobre todo, sobre nuestro derechos.

Por todo ello, y sobre todo porque para llevar adelante todos estos cambios es necesaria la fuerza de las mujeres en la lucha, el **26 de setiembre las mujeres a la huelga general.**

## El 26 de septiembre, *las mujeres a la HUELGA*

LAB